



**orereta  
ikastola**  
AURRERA!



hezkuntza-katalogoa  
catálogo educativo





**orereta**  
**ikastola**  
AURRERA!

## AURKIBIDEA | ÍNDICE

<b>0-18 hezkuntza-proiektua</b>   Proyecto educativo 0-18.....	06
<b>Azpiegiturak</b>   Infraestructuras.....	24
<b>Zerbitzuak</b>   Servicios.....	30
<b>Eskolaz kanpoko ekintzak</b>   Actividades extraescolares.....	32
<b>Antolaketa eta kudeaketa</b>   Organización y gestión.....	36
<b>Informazio praktikoa</b>   Información práctica.....	40
<b>Zergatik Ikastola?</b>   ¿Por qué la Ikastola? .....	48

**Ongi etorri, aurrera. Orereta Ikastolan zaude.**  
**Herritik eta herriarentzako sortu ginen, zuretzako ere bai.**

60. hamarkadan ireki genituen ateak, orain mende erdia baino gehiago, euskarari eta euskal kulturari oinarritutako kalitatezko hezkuntza behar zela eta posible zela sinestuta. Egun, horretan sinesten jarraitzen dugu eta posible dela esan dezakegu. Hala erakutsi digu orain arte egindako bideak, emaitzak horren lekuko. **0-18 urte arteko kalitatezko hezkuntza-proiektu euskalduna, nazionala eta burujabea da gurea, Euskal Herrian, euskarari zein euskal kulturari oinarritua eta beste hizkuntza nahiz kulturei irekia.**

Aitzindariak izan ginen eta hala izaten jarraitzea dugu desio. **Aurrera egin nahi dugu: pedagogia eraldatzaileak oinarri, Ikastola jendartearen beharretara egokitu eta horretarako prest izango diren pertsonak hezi nahi ditugu.** Hezkuntza akademikotik haratago, pertsona baikorrak, berengan konfiantza dutenak, akatsei beldurrik ez eta haietatik ikasten dutenak, aldaketen aurrean kikitzen ez direnak, ezintasunei aurre egiten diotenak, eta laguntza eskatu zein eskaintzen duten pertsonak hezteko dugu xede. **Pertsona biziak, aurrera egingo dutenak.** Berezkoa dugu hori Ikastolok. Horixe egin dugu sorreratik gaur arte ere: Ikastola aurrera atera. Eta Ikastolatik pasatzen direnek ere bizitzari aurrez begiratzea nahi dugu, bizitzan aurrera egiteko modua baita hori.

**Irabazi asmorik gabeko herri onurako kooperatiba izanik, etengabeko hobekuntzaren eta Ikastolako komunitate osoaren elkarlanaren fruitua duzu liburuxka honetan topatuko duzuna: Orereta Ikastolaren proiektua,** denon artean egin. Denona eta denontzako; zuretzako ere bai. Sartu, aurrera. Gustu baduzu, zure etxean zaude.

---

**IKUSMIRA:** Ikastola ereduari sinesten dugu. **Herritik herriarentzako sortutako hezkuntza-eredu propio euskalduna, burujabea eta kalitatezkoa posible da,** frogatu dugu; emaitzak dira horren isla.

**EGINKIZUNA:** Ikastolaldia bukatzean, **bere bizitzako edozein egoerari erantzuteko gaitasuna izango duen pertsona** euskaldun, libre eta zoriontsuak hezteko da Orereta Ikastolaren misioa.

**BALOREAK:** Euskalduna, Euskal Herrikoa, herritarra, hezkuntza-eredu propioa, irekia, parte-hartzailea, bizia, kalitatezkoa, ekintzailea, berritzailea, berdea eta eraldatzailea da Orereta Ikastola.

---

**Ongietorri, aurrera. Estás en Orereta Ikastola.  
Nacimos del pueblo y para el pueblo, también para ti.**

Abrimos nuestras puertas en la década de los 60, hace ya más de medio siglo, convencidos de que era necesaria y posible una educación de calidad basada en el euskera y en la cultura vasca. Hoy en día, seguimos convencidos de ello y podemos afirmar que es posible. Así nos lo ha mostrado el camino recorrido hasta ahora, con los resultados obtenidos como testigo. **El nuestro es un proyecto educativo euskaldun, propio, de visión nacional y de calidad, dirigido a la franja de edad de 0 a 18 años, basado en el euskera y en la cultura vasca, y abierto a otras lenguas y culturas.**

Fuimos pioneros y queremos continuar siéndolo. Queremos avanzar. **Queremos adaptar la Ikastola a las necesidades de la sociedad y educar personas que estén preparadas para ello, basándonos en las corrientes pedagógicas más innovadoras y transformadoras.** Más allá del aspecto estrictamente académico, tenemos como objetivo educar personas optimistas, que confíen en sí mismas, que no temen a los errores y que aprenden de ellos, que no se intimidan ante los cambios, que se enfrentan a las dificultades, que piden y que ofrecen ayuda. **Personas vivas, personas que sabrán recorrer su camino.** Avanzar y mirar adelante son parte de nuestro ADN, del ADN de las Ikastolas. Eso es lo que hemos hecho desde nuestro origen: pese a todas las dificultades, proyectar la Ikastola hacia el futuro. Y queremos también que todas las personas que pasen por la Ikastola miren a la vida de frente, porque esa es la manera de avanzar en la vida.

**Siendo una cooperativa sin ánimo de lucro y de bien común, lo que vais a encontrar en este catálogo es fruto de la mejora continua y del trabajo conjunto de toda la comunidad de la Ikastola: el proyecto de Orereta Ikastola,** creado entre todas y todos. De todas y todos, para todas y todos, y también para ti. Si así lo deseas, estás en tu casa. Sartu, aurrera.

---

**VISIÓN:** Creemos en el Modelo Ikastola. Se ha demostrado que el modelo **de educación propio, euskaldun, comunitario y de calidad creado desde el pueblo y para el pueblo es posible**, y los resultados son reflejo de ello.

**MISIÓN:** La misión de Orereta Ikastola es ser compañera de viaje de **personas euskaldunes, libres y felices que serán capaces de afrontar cualquier situación de la vida** al finalizar la etapa de la Ikastola.

**VALORES:** Orereta Ikastola es euskaldun, de Euskal Herria, popular, con modelo educativo propio, abierto, participativo, vivo, de calidad, emprendedor, innovador, verde y transformador.

---

## Hezkuntza-proiektua

# PEDAGOGIA ERALDATZAILEA

Hezkuntza ezinbesteko tresna da etorkizuneko jendartea eraikitzeko. Ikastolen Elkarteko ikas-material propioak eta korrante pedagogiko berriak aztertu, hausnartu, gure behar eta errealitatera egokitu eta abian jartzeko ahalegin etengabearen fruitua da Orereta Ikastolaren hezkuntza-proiektua. Proiektu propioa, haur eta gaztetxoengatik ongizatea oinarri eta autonomia helburu dituena.

## Hezkuntza-proiektua: Haur Hezkuntza (0-6 urte)

# Zimendu sendoak, aurrera egiteko

» ***Lehen urteak dira garrantzitsuenak haurren garapenean. Horixe da gure premisarik handiena.***

Lehen urteak dira garrantzitsuenak haurren garapenean. Horixe da gure premisarik handiena. Izan ere, haurrak etapa honetan hasten dira lantzen adimen-gaitasunak, nortasun-ezaugarriak, gorputzaren ahalmenak, eta sozializatorako zein harremanetarako oinarriak, besteak beste. **Zimendu sendoak eraiki behar dituzte gerora horren gainean altxatu ahal izateko, aurrera egiteko.**

Orereta Ikastolak haur eskola zein bi urtetik aurrerako gelak eskaintzen ditu. Batean zein bestean, **ikaslearen beharretatik, nahietatik, gustuetatik, jakin-minetik abiatuta egiten dugu lan.** Finean, haurren senetik eta erritmotik abiatuta aritzen gara; bera da bere bizitzako protagonista, gu bere bidelagun gara. Konfiantzaren eta integrazioaren pedagogia abiapuntu, beste zenbait korrante ere kontuan hartuta, haurra proiektu eta prozesuaren

erdigunean jartzea dugu xede. **Profesionalen formazio jarraiaz gain, espazioak ere erronka horri erantzuteko prestatuta daude.** Zirkulazio librerako, harremanak garatzeko, autonomia lantzeko, senak dioena garatu ahal izateko... erabat berri edota egokituta daude Ikastolako espazioak. **Aurrerapauso hori eman dugun lehenak gara herrian.**

Orientazio mintegiak lan eta leku berezia betetzen du Orereta Ikastolan. Haur Hezkuntzako etapan, behaketa lanak garrantzia handia du. Maila prebentiboan beharrik antzemanez gero, ikaslearen premiei erantzun ahal izateko esku-hartzea abian jartzen da. Horretarako, bi espezialista daude: psikomotrizista eta logopeda.

**Haur Hezkuntzan sarrera ordu malgua eskaintzen dugu,** haurren zein familien erritmoak eta beharrak gehiago errespetatu ahal izateko helburuz.



## Proyecto educativo

# PEDAGOGÍA TRANSFORMADORA

La educación es una herramienta imprescindible para construir la sociedad del futuro. El proyecto educativo de Orereta Ikastola es fruto del esfuerzo constante de analizar, reflexionar y adaptar a nuestras necesidades y realidades las corrientes pedagógicas más innovadoras, y de trabajar con los materiales didácticos propios de la Federación de Ikastolas. Se trata de un proyecto propio basado en el bienestar de las y los alumnos, y que tiene como objetivo su autonomía como personas.

## Proyecto educativo: Educación Infantil (0-6 años)

# Sólidos cimientos... para avanzar

Los primeros años son los más importantes en el desarrollo de la niña o niño. Esa es nuestra mayor premisa. Es en esta etapa cuando las niñas y niños comienzan a desarrollar sus capacidades mentales, su personalidad, sus facultades físicas, y las bases tanto para la socialización como para las relaciones humanas, entre otros factores. **Tienen que construir cimientos sólidos para poder edificar sobre ellos sus vidas, para poder avanzar.**

Orereta Ikastola ofrece tanto escuela infantil como aulas de Educación Infantil a partir de dos años. En ambos **trabajamos partiendo de las necesidades, los deseos, los gustos y la curiosidad del alumnado.** Al fin y al cabo, actuamos partiendo del instinto y del ritmo del menor: ellas y ellos son los protagonistas de su viaje, nosotros somos sus compañeros de viaje. Tomando como punto de partida la pedagogía de la confianza y la integración, y considerando también otras corrientes educativas, nuestro objetivo es situar

a la niña o niño en el centro del proyecto y del proceso. **Además de la formación continua de los profesionales, los espacios también están preparados para responder a ese reto:** para la circulación libre, para desarrollar relaciones, para fomentar la autonomía, para abrir camino a lo que dicta el instinto de cada niña o niño... Los espacios de la Ikastola están totalmente renovados y/o adaptados. Hemos sido los primeros en dar ese paso en nuestra localidad.

El seminario de orientación ocupa un lugar destacado en Orereta Ikastola. En Educación Infantil es de gran importancia el trabajo de observación. En caso de detectar necesidades a nivel preventivo, se pone en marcha la intervención para dar respuesta a las necesidades del alumnado. Para ello hay dos especialistas: un psicomotricista y un logopeda.

**Ofrecemos un horario de entrada flexible en Educación Infantil,** al objeto de respetar más los ritmos y las necesidades de los menores y de las familias.



## Hezkuntza-proiektua: Haur Hezkuntza (0-6 urte)

# Espazioa, hezkuntza-beharretara egokitua

Orereta Ikastolako Haur Hezkuntzako proiektu pedagogikoaren oinarria haurren ongizatea eta konfiantza dira; haien autonomia, berriz, helburua. Haurra gaitasunez betetako pertsona dela eta ikasteko berezko gaitasuna duela sinetsita, behatzeko eta lan egiteko modu berritzaileak jorratzen ari gara. Bide horretan irmo aurrera egin ahal izateko, **espazioak ere horri erantzuteko prest daude: Esmalteriako eraikina erabat eraberrituta dago eta Linokoa egiteko proiektua martxan da.**

Ongizateak giro eta ingurugiro osasungarrien beharra du eta hori haurrek beraien, familiek, profesionalak, materialek eta, batez ere, berdinekiko harremanek aberastuko dute.

Jolasa da beste zimendu garrantzitsu bat. Haurrak airea bezainbeste behar du jolasa, bizitzen ari den mundua ulertu eta kudeatzen ikasteko. Jolasaren eta esperimertzioaren bitartez norberaren erritmoak errespetatzea lortzen da; autonomia, talde-lana eta

harremanak aberasten dira, eta, guztiaren gainetik, haurrak bizitzan aurrera egiteko beharrezkoa izango duen konfiantza garatuko du.

**Espazioen antolaketa funtsezkoa da horretarako guztirako, giro eta ingurugiro osasungarriko zein jolaserako eta esperimertzioarako.**

» ***Esmalteriako eraikina erabat eraberrituta dago eta Linokoa egiteko proiektua martxan da.***





Proyecto educativo:  
Educación Infantil (0-6 años)

## El espacio, adaptado a las necesidades educativas

El proyecto pedagógico de Educación Infantil de Orereta Ikastola se basa en el bienestar y la confianza de las y los niños, y su autonomía es el objetivo. Convencidos de que la o el niño es una persona llena de capacidades y con capacidad propia de aprendizaje, estamos trabajando con formas innovadoras de observación y de trabajo. Para poder avanzar de forma firme en ese camino, **los espacios también responden a dicho objetivo: el edificio de Esmalteria está totalmente rehabilitado y está en marcha el proyecto de renovación de Lino.**

El bienestar necesita de un ambiente y medio ambiente saludables; los cuales serán enriquecidos por los propios niños y niñas, las familias, las y los profesionales, los materiales y, sobre todo, por las relaciones entre iguales.

Otro cimiento importante es el juego. La o el niño necesita el juego tanto como el aire para aprender a comprender y a gestionar el mundo que le rodea. A través del juego y la experimentación se consigue respetar los ritmos propios; se enriquecen la autonomía, el trabajo en equipo y las relaciones y, por encima de todo, se desarrolla la confianza necesaria para que el niño o niña avance en la vida.

**La organización de los espacios es fundamental para todo ello, para un ambiente y un medio ambiente saludables, para el juego y para la experimentación.**

» *La organización de los espacios es fundamental para todo ello, para un ambiente y un medio ambiente saludables, para el juego y para la experimentación.*





Hezkuntza-proiektua: Haur Hezkuntza (0-6 urte)

## Proiektu pedagogikoan txertatutako baso-eskola propioa

**Aire zabaleko gune pedagogiko propioa dugu Orereta Ikastolan**, gure hezkuntza-proiektu osoaren parte izan, eta hura indartzeko, aberasteko eta osatzeko. **Hezkuntza-proiektuaren oinarri eta helburu pedagogiko berberak ditu baso-eskolak. Ez da haren osagarri, haren parte baizik;** ohiko eskola-jardunean egiten dena aire zabalean egin ahal izateko (esplorazioa, matematika...). Basoa ikasgela bat bezain Ikastola da.

Basoan lantzen diren edukiak curriculum ofizialean oinarrituta daude eta baliabide didaktiko garrantzitsuena natura bera da. Horrez gain, haurren eta naturaren arteko elkarrekintzari esker, ikasleen garapen osoa bultzatzen da. Momentuz, HH3tik LH3ra arteko ikasleek erabiltzen dute modu jarrai eta sistematikoan.

Basoa hezkuntza-proiektuan integratzeak bereizten du Añabitarteko baso-eskola ezagutzen ditugun ohiko beste baso-eskoletatik. **Orereta Ikastola da hori egin duen Euskal Herriko lehen ikastetxea.**

» ***Aire zabaleko gune pedagogiko propioa dugu Orereta Ikastolan.***



Proyecto educativo:  
Educación Infantil (0-6 años)

## Escuela forestal propia integrada en el proyecto educativo

En Orereta Ikastola contamos con un espacio pedagógico al aire libre propio, para reforzar, enriquecer y complementar nuestro proyecto educativo. La escuela forestal tiene las mismas bases y objetivos pedagógicos que el proyecto educativo. No es un recurso complementario, sino parte del proyecto; para poder hacer al aire libre lo que se hace en el día a día en el aula (exploración, matemáticas...). El bosque es tan Ikastola como un aula.

Los contenidos que se trabajan en el bosque están basados en el currículo oficial, siendo la propia naturaleza el recurso didáctico más importante. Además, la interacción entre la o el niño y la naturaleza favorece el desarrollo integral del alumnado. De momento, es el alumnado de entre 3 y 9 años quien lo utiliza de forma continua y sistemática.

La integración del bosque en el proyecto educativo diferencia a la escuela forestal de Añabitarte de las escuelas forestales tradicionales que conocemos. **Orereta Ikastola es el primer centro de Euskal Herria en hacer lo mencionado.**



## Hezkuntza-proiektua: Lehen Hezkuntza (6-12 urte)

# Jakitetik jardutera, aurrera egiteko

Konpetentzietan oinarrituta egiten dugu lan. Jakitearen paradigmatic egitearen, erabiltzearen, paradigmara egin dugu jauzia. Izan ere, **Ikastolaren egitekoa ez da irakastea soilik, pertsona osoaren garapenaz arduratzea baizik**. Haurren alderdi fisikoa, kognitiboa, komunikatiboa, soziala eta afektiboa izaten ditugu kontuan Ikastolan: pentsatzen eta ikasten ikasten dugu, elkarrekin egiten, norbera izaten, eta ekiten nahiz egiten ikasten dugu. Finean, **gaztetxoak bizitza osoan ikasten jarraitzeko prestatzen ditugu, aurrera egiten ikasteko**.

» ***Konpetentzietan oinarrituta egiten dugu lan. Jakitearen paradigmatic egitearen, erabiltzearen, paradigmara egin dugu jauzia.***

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako lehen urteen arteko zubia sendotzeko lanean ari gara, batetik besterako jauzia jarraia, ziarra eta samurragoa izan dadin. Besteak beste, ikasturteko lehen hilabeteetan garrantzia berezia ematen zaio talde-kohesioari eta elkar ezagutzeari, Haur Hezkuntzan aplikatzen diren egitura pedagogikoak (zirkulazio librea...) LH 1. mailan txertatzen hasi gara, eta bakarkako guraso-bilerak maiztasun gehiagoz egiten ditugu irakasle eta familien arteko harremana estutu eta euren seme-alaben egokitzapena gertutik jarraitu ahal izateko. Aipatutakoaz gain, arte-hezkuntzak leku propioa eta garrantzitsua izateko apustua egin dugu.

**Lehen Hezkuntzako azken zikloan, Ikastolek berariaz sortu eta garatutako EKI proiektuarekin egiten dugu lan.** Proiektu berritzailea da EKI, konpetentzietan oinarritua eta integrazioaren bitartez Euskal Curriculuma garatzen duen proiektu berritzailea.

EKI proiektuak pertsonaren garapen osoa eta integrala du helburu. Egoera errealean aurrean, ikasleak egoera horretan behar dituzten baliabideak bilatzen eta erabiltzen ohi diren dira, bakarrik nahiz talde-lanean, irtenbideak aurkitzen dituzte, eta ikasi dutena egoera berrietan baliatzen dute. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza osoan ere EKIk egiten dugu lan.

Aipatu, baita ere, **konpetentzia digitalaren lanketa unitate didaktiko guztietan txertatu dela**. IKTak hezkuntzaren zerbitzura jarri eta, haien bitartez, onura pedagogikoak indartu dira.

**Orientazio mintegiak lan eta leku berezia betetzen du Orereta Ikastolan.** Lehen Hezkuntzako lehen zikloan, hizkuntzari, bereziki irakurketa-idazketari, eskaintzen zaio arreta. Hala, ikaskuntza kooperatiboa, bizikidetzat aintzat hartzen duen berdinen arteko harremana zein oinarritzko konpetentziak oinarri dituen irakaskuntzaren jarraipena egiten da. Halaber, aurretiaz antzemaniko kasu konkretuei heltzen zaie eta balizko kasu posible berriak antzeman ahal izateko estrategiak ere baditugu.

## Proyecto educativo: Educación Primaria (6-12 años)

# Del saber a la acción... para avanzar

Trabajamos basándonos en las competencias. Hemos dado el salto del paradigma del saber al paradigma del hacer, al paradigma de la práctica. Porque **la función de la Ikastola no es sólo enseñar, sino preocuparse del desarrollo íntegro de la persona.** En la Ikastola tenemos en cuenta el aspecto físico, cognitivo, comunicativo, social y afectivo de la niña o niño: aprendemos a pensar y a aprender, a hacer juntos, a ser uno mismo, aprendemos tanto a emprender como a hacer. Al fin y al cabo, **preparamos a las y los jóvenes para continuar aprendiendo durante toda la vida, para continuar avanzando.**

Estamos trabajando en **reforzar el puente entre Educación Infantil y Educación Primaria para que el salto sea más continuo, seguro y suave.** A principio de curso se le da especial importancia a la cohesión de grupo y al conocimiento mutuo. También hemos empezado a introducir las estructuras pedagógicas (circulación libre...) que se aplican en Educación Infantil en 1º de Primaria. Las reuniones individuales con las familias se celebran con más asiduidad para estrechar la relación con el profesorado, y poder seguir de cerca la adaptación de sus hijos e hijas. Además de lo mencionado, hemos apostado por darle lugar propio e importancia a la educación artística.

**En el último ciclo de Educación Primaria trabajamos con el proyecto EKI, proyecto creado y desarrollado específicamente por las Ikastolas.**

EKI es un programa innovador basado en las competencias y que mediante la integración desarrolla el Currículum Vasco.

El proyecto EKI busca el desarrollo completo e integral de la persona. Ante situaciones reales, el alumnado debe habituarse a buscar y utilizar los recursos que necesita en tales situaciones, tanto de forma individual como en grupo, y emplear lo aprendido en nuevas situaciones. En toda la Educación Secundaria Obligatoria también trabajamos con EKI.

Señalar a su vez **que el desarrollo de la competencia digital se ha introducido en todas las unidades didácticas.** Las TIC se han puesto al servicio de la educación y se han fortalecido los beneficios pedagógicos.

**El seminario de orientación ocupa un lugar destacado en Orereta Ikastola.** En el primer ciclo de Educación Primaria, el trabajo se centra en el idioma, especialmente en la lectura y escritura. En Primaria también se realiza un seguimiento del aprendizaje cooperativo, de la relación entre iguales basada en la convivencia y del aprendizaje de las competencias básicas. Así mismo, se abordan los casos concretos ya detectados y tenemos estrategias para detectar posibles nuevos casos.

» ***La función de la Ikastola no es sólo enseñar, sino preocuparse del desarrollo íntegro de la persona.***



## Hezkuntza-proiektua: Lehen Hezkuntza (6-12 urte)

# Ikasgelak atari zabalean

Ikastola inguru berdean, mendialdean, egoteak kompetentziak ikasgelatik kanpo ere lantzen laguntzen digu. Eta horretarako, belardi eta zuhaitzez gain, aire zabaleko gune pedagogikoak ditugu gure hezkuntza-proiektuaren parte izan eta hura indartzeko, aberasteko eta osatzeko: **baso-eskola, baratzea eta jolasgaraiko proiektua.**

Baso-eskolak giza-eraginik izan ez duen guneetan lan egiteko aukera ematen digun bitartean (ikus 26. orrialdea), Añabitarteko baratzeak aukera bikaina eskaintzen digu ortuaren erritmoez ohartzeko,

» *Ikastola inguru berdean, mendialdean, egoteak kompetentziak ikasgelatik kanpo ere lantzen laguntzen digu.*

natura zein emankorra eta jakintsua den ezagutzeko, lanabesak egoki eta zuzen erabiltzen ikasteko, euskarazko hiztegia aberasteko zein talde-lanaren garrantziaz ohartzeko. Autokonpostarako guneak ere badira Ikastolan.

# KIVa programa, eskola-jazarpenaren prebentzio eta kudeaketarako egitasmo berritzailea

**KIVa programa bullying edo eskola-jazarpenaren prebentzio eta kudeaketarako egitasmo berritzailea da,** jazarpenaren beraren eta haren mekanismoen gaineko punta-puntako ikerketak egin eta baliatuz Finlandiako Turku Unibertsitateak garatua, herrialde hartako Hezkuntza eta Kultura Sailaren babesarekin.

KIVan ekintza orokorrak eta berariazkoak uztartzen dira. Lehenak (KIVa curriculum-a) ikasle guztiei zuzenduta daude eta jazarpenaren prebentzioa dute helburu. Berariazko ekintzak, berriz, jazarpen-kasuak hautematean jartzen dira martxan. Jazarpena kudeatzeko eta gelditzeko neurriak dira.

**KIVak ikastetxe bakoitzaren egoeraren etengabeko jarraipena egiteko baliabideak eskaintzen ditu.** Horiek horrela, programaren

ezarpenaren eta haren emaitzen berri jasotzen dugu. Emaitzak positiboak dira.

Lehen Hezkuntzan hasi ginen KIVa programa lantzen eta, hor sendotuta, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ere txertatuta dago gaur egun.



Proyecto educativo:  
Educación Primaria (6-12 años)



## Aulas al aire libre

El hecho de que la Ikastola esté ubicada en un entorno verde, en plena naturaleza, nos ayuda también a desarrollar las competencias fuera del aula. Y para ello, además de árboles y campos, disponemos de **zonas pedagógicas al aire libre** que son parte de nuestro proyecto educativo y nos permiten reforzarlo, enriquecerlo y completarlo. Se trata de la **escuela forestal, la huerta y el proyecto del recreo**.

Mientras que la escuela forestal nos permite trabajar en zonas que no han tenido influencia humana (ver página 27), la huerta de Añabitarte ofrece una oportunidad inmejorable para darse cuenta de los ritmos de la huerta, para conocer lo fructífera y sabia que es la naturaleza, para aprender a utilizar correctamente las herramientas, para enriquecer el vocabulario en euskera y para darse cuenta de la importancia del trabajo en equipo. La Ikastola también cuenta con espacios de autocompostaje.

## Programa KIVa, plan innovador para prevenir y gestionar el acoso escolar

**El programa KIVa es un proyecto innovador para la prevención y gestión del bullying o acoso escolar.** Es un plan desarrollado por la Universidad Turku de Finlandia con el apoyo del Departamento de Educación y Cultura de dicho país, y basado en investigaciones punteras sobre el propio acoso y sus mecanismos.

» *El programa KIVa es un proyecto innovador para la prevención y gestión del bullying o acoso escolar.*



KIVa combina acciones generales y específicas. Las primeras (currículum KIVa) están dirigidas a todas y todos los alumnos y tienen como objetivo prevenir el acoso. Las acciones específicas se ponen en marcha al detectar casos de acoso. Son medidas de gestión y paralización del acoso.

**El programa KIVa ofrece recursos para el seguimiento continuo de la situación de cada centro.** Por ello, tenemos datos sobre la implantación del programa y sobre sus resultados en la Ikastola. Los resultados son positivos.

Empezamos a trabajar con el programa KIVa en Educación Primaria, y consolidado en esa etapa, hoy en día también está integrado en Educación Secundaria Obligatoria.

## Hezkuntza-proiektua: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (12-16 urte)

# Erabaki-gaitasuna, aurrera egiteko

**Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, arlo kurrikularraren garrantzia ezagutu eta sakontzen dugu.**

**Konpetentzietan oinarrituta lan egiten jarraitzen dugu DBHn ere.** Jakitearen paradigmatik egitearen, erabiltzearen, paradigmaraz egin dugu jauzia. Izan ere, Ikastolaren egitekoa ez da irakastea soilik, pertsona osoaren garapenez arduratzea baizik. **Gazteak bizitza osoan ikasten jarraitzeko prestatzen ditugu, aurrera egiten ikasteko.**

Horretarako, **EKI proiektu berritzailean oinarritzen dugu gure lana.** Ikastolek berariaz sortu eta garatutako proiektua da EKI, konpetentzietan oinarritua eta integrazioaren bitartez Euskal Curriculuma garatzen duena. EKI proiektuak pertsonaren garapen osoa eta integrala bilatzen du. Egoera errealean aurrean, ikasleak egoera horretan behar dituzten baliabideak bilatzen eta erabiltzen ohitzen dira, bakarrik nahiz talde-lanean, irtenbideak aurkitzen dituzte, eta ikasi dutena egoera berrietan baliatzen dute.

Badira urte batzuk EKIrekin lan egiten dugula. **Emaitzak onak dira eta proiektua Ikastolara egokitzen dihardugu orain, proiektua gure behar eta nahietara egokitzen.**

Aipatu, baita ere, **konpetentzia digitalaren lanketa unitate didaktiko guztietan txertatu dela.** IKTak hezkuntzaren zerbitzura jarri eta, haien bitartez, onura pedagogikoak indartu dira. Hori gauzatu ahal izateko, besteak beste, ikasle bakoitzak bere ordenagailu propioa du eta harekin egiten du lan ikasgelan. Horrez gain, **Ikastola inguru berdean, mendialdean, egoteak konpetentziak ikasgelatik kanpo ere lantzen laguntzen digu.**

Gazteak lan-mundura zein goi-mailako ikasketetara bideratzea da gure egitekoa Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, haien bidelagun izatea. Horretarako, **orientazio-departamentuaz gain, beren bidea itxuratzen eta marrazten hasteko aukera akademikoa eskaintzen zaie ikasleei DBHko azken mailetan.**

Aipatu, **eskola jazarpena ekidin eta kudeatzeko KIVa programa** txertatua dugula Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ere, Lehen Hezkuntzan hasitako bideari jarraiki eta emaitza positiboekin bermearekin.

- » ***EKI proiektu berritzailean oinarritzen dugu gure lana. Ikastolek berariaz sortu eta garatutako proiektua da EKI.***





Proyecto educativo:  
Educación Secundaria Obligatoria (12-16 años)

# Capacidad de decisión... para avanzar

En Educación Secundaria Obligatoria subrayamos la importancia del área curricular y profundizamos en ella.

En la ESO continuamos trabajando basándonos en las competencias. Hemos dado el salto del paradigma del saber al paradigma del hacer, al paradigma de la práctica. Porque la función de la Ikastola no es sólo enseñar, sino preocuparse del desarrollo íntegro de la persona. **Preparamos a los jóvenes para continuar aprendiendo durante toda la vida, para continuar avanzando.**

Para eso, **basamos nuestro trabajo en el proyecto innovador EKI.** El proyecto EKI es un proyecto creado y desarrollado específicamente por las Ikastolas, basado en las competencias y que desarrolla el Currículum Vasco mediante la integración. El proyecto EKI busca el desarrollo completo e integral de la persona. Ante situaciones reales, el alumnado debe habituarse a buscar y utilizar los recursos que necesita en esas situaciones, tanto de forma individual como en grupo, y emplear lo aprendido en nuevas situaciones.

Hace ya algunos años que trabajamos con EKI. **Los resultados son buenos y ahora estamos inmersos en adaptar el proyecto a la Ikastola, en adaptar el proyecto a nuestras necesidades y a nuestros deseos.**

Señalar a su vez **que el desarrollo de la competencia digital se ha introducido en todas las unidades didácticas.** Las TIC se han puesto al servicio de la educación y se han fortalecido los beneficios pedagógicos. Para

► *Además del departamento de orientación, al alumnado de la ESO se le ofrece la oportunidad académica de empezar a esbozar y dibujar su propio recorrido, durante los últimos cursos.*

poder materializarlo, entre otros puntos, cada alumna o alumno dispone de ordenador propio y trabaja con él en el aula. Además, **el hecho de que la Ikastola esté ubicada en un entorno verde, en plena naturaleza, nos ayuda también a desarrollar las competencias fuera del aula.**

Nuestra tarea en Educación Secundaria Obligatoria consiste en orientar a las y los jóvenes tanto al mundo laboral como a los estudios superiores, ser sus compañeros de viaje. Para ello, **además del departamento de orientación, al alumnado de la ESO se le ofrece la oportunidad académica de empezar a esbozar y dibujar su propio recorrido, durante los últimos cursos.**

Empezamos a trabajar con el programa KIVA en Educación Primaria y, viendo los resultados, hoy en día también está integrado en Educación Secundaria Obligatoria. **KIVA es un programa innovador para la prevención y gestión del acoso escolar.**



Hezkuntza-proiektua:  
Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (12-16 urte)

## Ikasgela inklusiboak, aniztasunaren mesedetan

Behar jakinak dituzten ikasleei laguntzeko baliabideak dira pedagogiaren zutabe garrantzitsuetako bat. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Hezkuntza Berariaz Sendotzeko Programa eta Curriculum Aniztasuneko Proiektua martxan dira. Ikasgela inklusiboak ditugu 3. eta 4. mailan. Horiei esker, behar jakinak edota bereziak dituzten ikasleak hobeto artatzeko aukera du Ikastolak. Ikasgelek bi tutore izatea da ikasle eta familia orori arreta zuzenagoa eskaintzeko aukera ematen duen beste baliabideetako bat.


» Behar jakinak edota bereziak dituzten ikasleak hobeto artatzeko baliabideak ditu Ikastolak. Ikasgelek bi tutore izatea da ikasle eta familia orori arreta zuzenagoa eskaintzeko aukera ematen duen beste baliabideetako bat.

Proyecto educativo:  
Educación Secundaria Obligatoria (12-16 años)

## Aulas inclusivas en pro de la diversidad

Uno de los pilares importantes de la pedagogía son los recursos para ayudar al alumnado con necesidades concretas. En Educación Secundaria Obligatoria tenemos en marcha el Proyecto de Refuerzo Educativo Específico y el Proyecto de Diversificación Curricular. Tenemos aulas inclusivas en 3º y 4º. Gracias a ellos, la ikastola tiene la oportunidad de atender mejor a las y los alumnos con necesidades concretas y/o especiales. El hecho de que las aulas cuenten con dos tutores es otro de los recursos que permite una atención más directa a todos los alumnos y alumnas y familias.

- » *Uno de los pilares importantes de la pedagogía son los recursos para ayudar al alumnado con necesidades concretas.*



## Hezkuntza-proiektua: Batxilergoa (16-18 urte)

# Azken pausoa, bizitzaren eskolan aurrera egiteko

Oiartzo Ikastolan amaitzen dute gure ikasleek Ikastolako ibilbidea. Oiartzungo Haurtzaro Ikastolak eta Orereta Ikastolak sortutako fundazioa da Oiartzo. 90. hamarkadaren amaieran ireki zituen atea eta **batxilergo euskalduna, kalitatezkoa eta aukera zabalekoa** eskaintzea du xede. Haurtzaro eta Orereta Ikastolak bezalaxe, Oiartzo ere Euskal Herriko Ikastolen Elkarteko kide da, kalitatezko euskarazko hezkuntzaren berme.

Ikasleekiko **hurbiltasuna, jarraipen gertua eta ondorengo ikasketetarako zein ibilbide profesionalerako aholkularitza** eskaintzen ditu Oiartzok.

» ***Batxilergo euskalduna, kalitatezkoa eta aukera zabalekoa.***

# Eleaniztasuna, ikas-bizitzan egindakoaren uzta

Haur Hezkuntzatik Batxilergora arte lantzen da **eleaniztasuna** Ikastolan, euskara zutabe hartuta. Haur Hezkuntzatik lantzen da ingelesa, eta frantsesa hautazko irakasgaia da Bigarren Hezkuntzan. **Egindako lanaren agiri ofizialak lortzeko aukera eskaintzen da Batxilergoan:** HABEren 3. euskara-maila lortzeko prestaketa (AEKren laguntzaz) eta ingeleseko B2 titulua lortzeko Oxfordeko azterketa egiteko aukera (hala nahi duen herritar ororentzat irekia) eskaintzen dira.



## Proyecto educativo: Bachiller (16-18 años)

# El último paso para avanzar en la escuela de la vida

Es en Oiartzo Ikastola donde nuestro alumnado finaliza su recorrido de la Ikastola. Oiartzo es una fundación creada por Haurtzaro Ikastola (Oiartzun) y Orereta Ikastola. Abrió sus puertas en la década de los 90 y tiene como objetivo ofrecer **un bachillerato euskaldun, de calidad, amplio y variado**. Al igual que Haurtzaro y Orereta, Oiartzo es también miembro de la Federación de Ikastolas de Euskal Herria, garante de calidad de la educación en euskera.

Oiartzo Ikastola ofrece cercanía al alumnado y a sus familias, y **seguimiento cercano** y

**asesoría** tanto para los estudios posteriores como para el recorrido profesional al alumnado.

▮ *Oiartzo Ikastola ofrece cercanía al alumnado y a sus familias, y seguimiento cercano y asesoría tanto para los estudios posteriores como para el recorrido profesional al alumnado.*

# El plurilingüismo, fruto del trabajo realizado durante la vida estudiantil

En la Ikastola se trabaja el plurilingüismo desde la Educación Infantil hasta el Bachillerato, **tomando como pilar el euskera**. Las y los alumnos se inician con el inglés en Educación Infantil, y el francés se ofrece como asignatura optativa en Educación Secundaria. **En Bachillerato se ofrece la oportunidad de obtener títulos oficiales del trabajo hasta entonces realizado**. Precisamente, se ofrecen la ocasión de preparar la obtención del nivel 3 de euskera de HABE (con la colaboración de AEK) y la posibilidad de realizar el examen de Oxford para obtener el nivel B2 de inglés (opción abierta a toda la ciudadanía, no sólo a la comunidad de la Ikastola).



# Orereta Ikastolako ikasleen pertsona-eredua

Ikastolaldia bukatzean, bere bizitzako edozein egoerari erantzuteko gaitasuna izango duen pertsona euskaldun, libre eta zoriontsuaren bidaide izan nahi dute Orereta eta Oiartzo Ikastolek.

## Modelo de persona del alumnado de Orereta Ikastola

Orereta y Oiartzo quieren ser compañeros de viaje de personas euskaldunes, libres y felices que serán capaces de afrontar cualquier situación de la vida al finalizar la etapa de la Ikastola.

**oreret**



**ikastola**

AURRERA!



## Azpiegiturak

# HEZKUNTZARAKO AZPIEGITURA ETA ERAIKIN EGOKIAK

Orereta Ikastolak bost eraikin ditu, hiru gunetan banatuta: Haur Hezkuntza herriko erdigunean, Esmalterian (Koldo Mitxelena plaza) eta Linon (Lehendakari Agirre plaza); eta Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa Añabitarten, mendialdean.

Haur Hezkuntzan umearen beharretatik, nahietatik, gustuetatik, jakin-minetik abiatuta egiten dugu lan. Finean, haurren senetik eta erritmotik abiatuta aritzen gara; bera da bere bizitzako protagonista, gu bere bidelagun gara. Konfiantzaren eta integrazioaren pedagogia abiapuntu, beste zenbait korrante ere kontuan hartuta, haurra proiektu eta prozesuaren erdigunean jartzea dugu xede. **Profesionalen formazio jarraiaz gain, espazio eta guneak berak ere erronka horri erantzuteko prestatuta daude.** Zirkulazio libererako, harremanak garatzeko, autonomia lantzeko, senak dioena garatu ahal izateko... erabat berri edota egokituta daude Ikastolako espazioak. **Aurrerapauso hori eman dugun lehenak gara herrian.**





## Infraestructuras

# INFRAESTRUCTURAS Y EDIFICIOS APROPIADOS PARA LA EDUCACIÓN

Orereta Ikastola cuenta con cinco edificios, distribuidos en tres zonas: Educación Infantil en el centro de la localidad, en Esmalteria (Koldo Mitxelena plaza) y en Lino (Lehendakari Agirre plaza); y Educación Primaria, Educación Secundaria Obligatoria y Bachillerato en Añabitarte, en plena naturaleza.

**En Educación Infantil trabajamos partiendo de las necesidades, los deseos, los gustos y la curiosidad de la niña o niño.** Al fin y al cabo, actuamos partiendo de su instinto y de su ritmo, ellas y ellos son los protagonistas de su viaje, nosotros somos sus compañeros de viaje. Tomando como punto de partida la pedagogía de la confianza y la integración, y considerando también otras corrientes educativas, nuestro objetivo es situar a la niña o niño en el centro del proyecto y del proceso. **Además de la formación continua de los profesionales, los espacios también están preparados para responder a ese reto:** para la circulación libre, para desarrollar relaciones, para fomentar la autonomía, para abrir camino a lo que dicta el instinto de cada niña o niño... Los espacios de la Ikastola están totalmente renovados y/o adaptados. **Hemos sido los primeros en dar ese paso en nuestra localidad.**

## Azpiegiturak

# Añabitarate, arnasmune bat herrian

**Añabitaraten, mendialdean, du Ikastolak bere gunerik zabalena:** espazio berdez inguratutako zein eraikin eta azpiegitura onez osatutako 100.000 m<sup>2</sup>. **Arnasmune bat herrian.** Ikasleek jolaserako zein egoteko leku zabalak dituzte, baita pilotalekuak, kantxa estaliak eta futbol-zelaia ere. Añabitarateko inguruneak aukera bikaina eskaintzen digu ikasgelak kanpora ateratzeko ere, naturan eta naturaz ikasteko.

Bertan dago guneari izena ematen dion baserria ere. **Añabitarate Baserria da ikasle, langile, familia zein Ikastolako bazkideen elkargune.** Izan ere, eskola orduetatik kanpo, elkarte gastronomiko moduan funtzionatzen du Añabitarate Baserriak. Hura berritzeko plana martxan da, Ikastolako komunitate osoko ordezkarien gidaritzapean.

Ingurune berde hori eta haren inguruak ahalik eta ongien ezagutu eta haiei ahal bezain bateko etekina ateratzeko asmoz, **orientazio-mapa bat sortzen ari da Ikastola herrian jada egon badiren beste hainbat osagarri.**

» **Añabitaraten, mendialdean, du Ikastolak bere gunerik zabalena: espazio berdez inguratutako zein eraikin eta azpiegitura onez osatutako 100.000 m<sup>2</sup>. Arnasmune bat herrian.**

# Hezkuntza-proiektuan integratutako baso-eskola propioa

**Aire zabaleko gune pedagogiko propioa dugu Orereta Ikastolan,** gure hezkuntza-proiektu osoaren parte izan, eta hura indartzeko, aberasteko eta osatzeko. Hezkuntza-proiektuaren oinarri eta helburu pedagogiko berberak ditu baso-eskolak. Ez da haren osagarri, haren parte baizik; ohiko eskola-jardunean egiten dena aire zabalean egin ahal izateko (esplorazioa, matematika...). Basoa ikasgela bat bezain Ikastola da. Momentuz, HH3tik LH3ra arteko ikasleek erabiltzen dute modu jarrai eta sistematikoan.

Basoa hezkuntza-proiektuan integratzeak bereizten du Añabitarateko baso-eskola ezagutzen ditugun ohiko beste baso-eskoletatik. **Orereta Ikastola da hori egin duen Euskal Herriko lehen ikastetxea.**



## Infraestructuras

### Añabitarate, un pulmón verde en la localidad

**La Ikastola cuenta con su zona más amplia en Añabitarate, en plena naturaleza:** 100.000 m<sup>2</sup> rodeados de espacios verdes y dotados de buenos edificios y de buenas infraestructuras. **Un pulmón verde en la localidad.** El alumnado disfruta de amplios lugares para jugar y para estar, así como de varios frontones, canchas cubiertas y un campo de fútbol. El entorno de Añabitarate nos ofrece una magnífica oportunidad para poder proyectar las aulas hacia el exterior, para aprender de la naturaleza y en la naturaleza.

Allí se encuentra también el caserío que da nombre al lugar. **El Caserío Añabitarate es el punto de encuentro de estudiantes, trabajadores, familias y socios y socias de la Ikastola.** De hecho, fuera de las horas lectivas, el Caserío Añabitarate funciona como sociedad gastronómica. Está en marcha su plan de renovación, liderado por representantes de toda la comunidad de la Ikastola.

Con el fin de conocer y sacar el máximo partido a este entorno verde y a sus alrededores, la Ikastola está elaborando **un mapa de orientación que complementará a otros ya existentes en el municipio.**

### Escuela forestal propia integrada en el proyecto educativo

**En Orereta Ikastola contamos con un espacio pedagógico al aire libre propio,** para reforzar, enriquecer y complementar nuestro proyecto educativo. **La escuela forestal tiene las mismas bases y objetivos pedagógicos que el proyecto educativo. No es un recurso complementario, sino parte del proyecto;** para poder hacer al aire libre lo que se hace en el día a día en el aula (exploración, matemáticas...). De momento, es el alumnado de entre 3 y 9 años quien lo utiliza de forma continua y sistemática.

La integración del bosque en el proyecto educativo diferencia a la escuela forestal de Añabitarate de las escuelas forestales tradicionales que conocemos. **Orereta Ikastola es el primer centro de Euskal Herria en hacer lo mencionado.**

## Azpiegiturak

# Orereta eta Oiartzo Ikastolak, ikastetxe kardiobabestu integralak

Orereta eta Oiartzo Ikastola dira EAEko lehen ikastetxe kardiobabestu integralak. Izan ere, eraikin guztietan desfibriladoreak jarrita egoteaz gain, ikasleek zein langileek osasun arretarako formazio jarraia eta eguneratua jasotzen dute. Emergentziak Osakidetzarekin eta EHUko Medikuntza eta Erizaintza Fakultatearekin elkarlanean aurrera daramagun proiektua da aipatutakoa.

» *Orereta eta Oiartzo Ikastola dira EAEko lehen ikastetxe kardiobabestu integralak.*

# Orereta eta Oiartzo Ikastolak energia berriztagarri propioa

Orereta eta Oiartzo Ikastolek energia berriztagarri propioa sortzen duten sistema jarri dute. Ondorioz, kontsumituko duten energia % 100 berriztagarria izango da. Sistema honekin, tokian tokiko ekoizpena laguntzen da eta oinarrizko ondasun bihurtu den energia demokratizatu, bere kontrola duen oligopolioari alternatiba emanez eta garapen ekonomikoa bultzatuz

# % 100 elektrikoa den ibilgailua

Orereta Ikastolaren izaeraren eta baloreen artean naturarekiko errespetua izatea dago. Horregatik, urteak daramatza naturaren eta ekologiaren alde egiteko horretan ekintza ezberdinak burutzen eta ikasleak balio horietan hezitzen. Izaera berdea eraikitzeko ibilbide horretan egindako azken ekintza % 100 elektrikoa den furgoneta bat erostea izan da, Ikastolako eguneroko beharretarako pentsatua.



## Infraestructuras

### Orereta y Oiartzo, centros educativos cardioprotegidos integrales

**Orereta y Oiartzo Ikastola son los primeros centros educativos cardioprotegidos integrales de la CAV.**

Porque, además de haber instalado desfibriladores en los edificios, tanto el profesorado como el alumnado reciben formación continua y actualizada sobre atención sanitaria. El citado proyecto es una iniciativa que llevamos adelante en colaboración con Emergencias Osakidetza y la Facultad de Medicina y Enfermería de EHU/UPV.

» *El citado proyecto es una iniciativa que llevamos adelante en colaboración con Emergencias Osakidetza y la Facultad de Medicina y Enfermería de EHU/UPV.*

### Orereta y Oiartzo Ikastola generando energía renovable propia

Orereta Ikastola y Oiartzo Ikastola han instalado un sistema de generación de energía renovable propia. En consecuencia, la energía consumida será 100% renovable. Con este sistema se favorece la producción local y se democratiza la energía que se ha convertido en un bien básico, dando alternativa al oligopolio que ejerce su control y favoreciendo el desarrollo económico.

### Vehículo 100% eléctrico

Entre la naturaleza y los valores de Orereta Ikastola se encuentra el respeto a la naturaleza. Por ello, lleva años desarrollando diferentes acciones a favor de la naturaleza y la ecología y educando al alumnado en esos valores. La última acción realizada en este recorrido para construir el carácter verde ha sido la adquisición de una furgoneta 100% eléctrica, pensada para las necesidades cotidianas de la Ikastola.



## Zerbitzuak

# HEZKUNTZA-PROIEKTURA ORIENTATUTAKO ZERBITZU OSAGARRIAK

Zerbitzu osagarriez arduratzen diren profesional ia guztiak Ikastolako langileak dira eta, beraz, zuzeneko harremana dute pedagogia-proiektuan jarduten duten lankideekin. Zerbitzu osagarriak hezkuntza-proiektuan erabat integratzeko apustua egin du Orereta Ikastolak; ikasgelatik haratago, hezkuntza modu integralean lantzeko apustua, hain justu.

## JANGELA

sukalde propioa eta  
etxeko otorduak

Adin eta maila guztietako ikasleentzako jangela-zerbitzua eskaintzen du Orereta Ikastolak. Eta badu bereizgarri bat: **otordu guztiak Ikastolako sukaldean bertan prestatzen dira**. Bakarrak gara herrian hori eskaintzen. Menu bereziak ere prestatzen ditugu, hala behar duten ikasleentzat. Añabitarten dago Ikastolako sukaldea, berritua eta egokitua hori guztia gauzatu ahal izateko.

Jangelako begiraleek hezitzaile formazioa jasotzen dute. Izan ere, otorduak ere egitasmo pedagogikoaren barne hartzeko apustua egin dugu Orereta Ikastolan, batez ere ikas-bizitzaren lehen urteetan. Haur Hezkuntzako zaharrenekin JAN&ARI proiektua dugu abian. Jatordua eta jangela, ongi jateko espazioa izateaz gain, ikasleen dibertsio eta ikaskuntzarako eremu izatea lortu nahi dugu egitasmo horrekin; finean, heziketa-ingurune berri bat sortzea.

## GARRAIOA

Ikastolara heltzeko  
garraio-zerbitzua

Orereta Ikastolak garraio-zerbitzua eskaintzen du. Autobus egokitua dugu irisgarritasuna bermatzeko. Ohiko edo egungo autobus-zerbitzuak heltzen ez diren gunetako familiei edota kasuan kasuko behar edo egoerei erantzuteko prest gaude. Hori bada zure egoera, ez egin zalantzarik: jarri gurekin harremanetan.

## ZAINTZA-TXOKOA

goizez zein arratsaldez

Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako familiei zaintza-txokoa eskaintzen die Orereta Ikastolak. Goizetako zaintza 7:30etik 9:00ak artekoa izaten da. Arratsaldekoa, berriz, 17:00ak artekoa. Azken hau, arratsaldeko zaintza, Haur Hezkuntzan soilik eskaintzen dugu.

## FAMILIA-TAILERRAK

elkarrekin eta elkarlanean, hobeto

Familia haurren hezkuntzaren eta ikas-bizitzaren funtsezko zatia da. Hori horrela, Ikastolan lantzen diren proiektuen, metodologiaren zein gaien inguruko familia-tailerrak antolatzen ditugu, laguntza eskaini, familien zalantza eta galderak argitu, eta seme-alaben hezkuntzan elkarlanean aritzeko.



## Servicios

### SERVICIOS ORIENTADOS AL PROYECTO EDUCATIVO

La práctica totalidad de las y los profesionales encargados de los servicios forman parte del personal de la Ikastola, por lo que tienen relación directa con las y los compañeros que trabajan en el proyecto pedagógico. Orereta Ikastola ha apostado por la plena integración de los servicios complementarios en el proyecto educativo para trabajar la educación de forma integral, más allá del aula.

### COMEDOR cocina propia y comida casera

Orereta Ikastola ofrece servicio de comedor al alumnado de todas las edades. Y tiene una particularidad: **todas las comidas se elaboran en la cocina de la Ikastola.** Somos el único centro de la localidad en ofrecerlo. También preparamos menús especiales para las y los alumnos que así lo precisan. La cocina de la Ikastola está en Añabitarte, renovada y adaptada para poder ofrecer un buen servicio.

Las educadoras del comedor reciben formación específica. En efecto, en Orereta Ikastola hemos apostado por incluir también las comidas dentro del programa pedagógico, sobre todo en Educación Infantil. Con el alumnado más mayor de Educación Infantil estamos inmersos en la puesta en marcha del proyecto JAN&ARI. Gracias a ello, se desea conseguir que la hora de la comida y el propio comedor, además de ser momentos y espacios para comer bien, también sean momentos y espacios para la diversión y la educación. En definitiva, se trata de crear un nuevo ámbito educativo.



### TRANSPORTE servicio de transporte para llegar a la Ikastola

